

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# INDARTU GENERO INDARKERIAK PREBENITZEKO PROGRAMA UPV/EHU

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	3
HELBURUAK .....	4
NORI ZUZENDUA .....	5
EDUKIAK .....	5
METODOLOGIA .....	6
ESKU HARTZEAREN URRATSAK .....	6
EBALUAZIO ETA AKREDITAZIO PROZEDURA .....	8



# SARRERA

2017ko maiatzean, Berdintasunerako Zuzendaritzaren ekimenez, hogeita hamar bat pertsonako lantalde misto bat sortu zen, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planeko 3.3.2 ekintza betetzeko. Taldeko kide gehienak unibertsitateko sektore desberdinetakoak ziren (ikasleak, IRIak, AZPkoak, ordezkari sindikalak), eta, gainera, genero indarkerien aurkako esku hartzearen arloko bi aditu zeuden. Irakasleetako batzuk parte hartzen ari ziren unibertsitateetako sexu indarkeriei buruzko Europako ikerketa proiektu batean. Lantaldearen helburu nagusia zen Genero Indarkerien Aurkako UPV/EHUren Protokoloa egitea. Urtebeteko lanaren ostean, lantaldeak protokoloa amaitu zuen, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2018ko ekainaren 7an.

Protokoloaren Atarikoan esaten denez, UPV/EHUren helburua da *unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik. Eraberean, azpimarratzen da unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko.* UPV/EHUren ustez, genero indarkerien eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, unibertsitateak *konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko.*

Horretarako, Protokoloak biltzen ditu bai prebentzio neurriak eta bai indarkeria kasuak gertatzen direnean jarraitu beharreko prozedura. Zehazki, prebentzio neurrien helburua da *genero indarkeriazko ekintzak gerta daitezela eragozte, eta horretarako unibertsitateko kideak informatzeko, sentsibilizatze, trebatzeko eta prestatzeko estrategiak diseinatu eta ezar[tzen] ditu*. Neurri horiek genero berdintasun eta aniztasunarekiko eta sexu orientazioarekiko errespetuaren kultura sustatu behar dute, baita barne hartzailea eta indarkeriarik gabekoa izango den giroa sortu ere.

Testuinguru honetan aurkezten dugu gizarte eta hezkuntza esku-hartze psikosozialerako «INDARTU» PROGRAMA, UPV/EHUko andrezko ikasle gazteekin gauzatzekoa. Proposatzen dugu 2020/21 ikasturteko bigarren lauhilekoan hirugarren edizio bat egitea, andrezko ikasle guztiei zuzendua, eta hartara sustatzea unibertsitateko ikasleek etorkizunean genero indarkerien aurkako sare bat osa dezaten.



# HELBURUAK

Programaren **helburu nagusia** da emakumezko ikasle gazteak ahalduentzeko prozesu bat abian jartzea, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa.

**Helburu espezifikoak** hiru ataletan zehaztu dira: norbanakoaren mailan, testuinguruaren mailan eta aktibismoaren mailan.

## Norbanakoa

- Laguntzea ulertzen nork bere buruarengana dituen jarrerak (gorputzari dagokionez, plazerari dagokionez etab.).
- Nork bere buruarenganako jarrera positiboa eta autozaintza bultzatzea ahalduentzearen bidetik.

## Testuingurua

- Genero indarkerien sustrai, molde eta funtzioen berri ematea.
- Mikromatxismoak eta indarkeria bortizagoak identifikatzea eguneroko egoeretan.
- Baliabide pertsonalak eta kolektiboak eskaintzea egoera matxistak gainditzeko eguneroko bizitzan.
- Ahizpatasuna sustatzea eta indartzea parte hartzaileen artean.

## Aktibismo Feminista

- Ikasleen parte hartze soziopolitiko femnista piztea eta handitzea, hau da, ikasleak bultzatzea jarduera eta talde feministak sortzera eta halakoetan parte hartzera. Bereziki, ikasleak bultzatzea sare autokudeatu bat sortzera genero indarkerien kontra borroka egiteko unibertsitate eremuan.



# NORI ZUZENDUA

Programa andrezko ikasleei bakarrik zuzendua dago, eremu seguru eta ahalduntzaile bat sortze aldera. Ikasleak UPV/EHUko edozein campusetakoak eta edozein mailatakoak izan daitezke. Ikastaroan gehienez ere 80 ikaslek har dezakete parte.

# EDUKIAK

Edukiak hiru bloke tematikotan banatzen dira:

**Sexualitateak:** *zein motatako sexualitatea aurkezten zaigu gizartean? Noraino dauzkagu barneratuak sexu arauak? Zelan bizi dugu gure sexualitatea?*

**Genero indarkeriak:** *zer dira genero indarkeriak? Nortzuei eragiten digu eta zelan? Identifikatzen al ditugu eguneroko bizitzako mikromatxismoak? Zer-nolako harremanak eraikitzen ditugu arlo afektibo-sexualean, aisialdian, ikasketetan edo lanaren testuinguruan, bai eremu pribatuan eta bai publikoan?*

**Protokoloa:** *zer egin dezakegu indarkeria egoera batean? Zeintzuk baliabide eskaintzen dizkigute erakundeek? Zelan antola gaitzke eraso bati erantzuteko? Zer egin dezakegu unibertsitatea eremu segurua izan dadin andreontzat?*

## Sexualitateak

Sexualitatearen eredu hegemonikoa

Genero sozializazioa eta ikasitako babesgabetasuna

Dibertsitate sexuala eta monogamiaren mitoa

## Indarkeriak

Indarkeria matxistak

Sexu indarkeriak

Indarkeria sexistak edo generoetan oinarritutako indarkeriak

Indarkeriak harreman afektibo-sexualetan

## Baliabideak

Neure baliabideak

Baliabide kolektiboak: ahizpatasuna eta zaintza sarea

Baliabide instituzionalak: Protokoloa



# METODOLOGIA

Etika eta pedagogia feministetan oinarritutako metodologia bat erabiliko da, emakume bakoitzak bere esperientziaren bidez ikastearen garrantzia aitortzen duena. Etika feministak erdigunean jartzen du pertsona bakoitza eta bere bizi ibilbidea, hori bere aliatu onena delakoan aurrera egiten uzten ez diguten genero aginduak, eta eskura ditugun lanabesak erabakitzeko zein emakume izan nahi dugun eta zein harreman eduki gura ditugun, nork bere burua maitatzetik abiatuta. Pedagogia horiek lagunduko digute gertatzen zaigunari izena jartzen eta identifikatzen zein pauso eman behar ditugun bizitza on eta jasangarri bat izateko, harreman osasuntsu baten oinarria izanik norberaren zaintza eta elkarrekikotasuna.

Ikastaroa on line egingo dugu, astean behin bideo bilera batean elkartuz, eta astean zehar eztabaida foro batean parte hartuz eta zenbait jarduera eginez. Horrela lanabesak eskuratuko ditugu indarkeria matxistak detektatzeko eta haiei aurre egiteko, eta behar ditugun ezagutzak geurenaganatuko ditugu laguntza eskatzen digutenei lagun egiteko, behar izanez gero.

# ESKU HARTZEAREN URRATSAK

Programak bi orduko zortzi saio izango ditu bideo bileraz, eta beste hamar ordu nork bere kabuz eta foroan parte hartuz lan egiteko. Ikastaroak zortzi aste iraungo du lehen bideo deitik azkeneko lana amaitzeko egunera arte. Guztira 26 ordu izango dira, otsailaren hasieratik martxoaren amaierara arte.

## Laburpen taula

Saioak (2022eko otsail-martxoak)

Sexualitateak	
<p><b>1. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tratu onerantz.</li> <li>• Norbere buruarekiko maitasuna eta zaintza sareak.</li> </ul>	<p><b>2. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahalduntze sexuala.</li> <li>• Gorputza: konkistatutako lehen lurraldea.</li> </ul>
Off line eta on line indarkeriak	
<p><b>3. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria matxistak.</li> <li>• Indarkeria sexistak edo generoagatikoak.</li> </ul>	<p><b>4. saioa</b></p> <p>Indarkeria sexualak I:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen gorputzen hipersexualizazioa eta kosifikazioa.</li> <li>• Jazarpena espazio publikoetan: autodefentsa eta emakume sareak.</li> </ul>
<p><b>5. saioa</b></p> <p>Indarkeria sexualak II:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexu abusuak eta sexu erasoak.</li> <li>• Sumisio kimikoa.</li> </ul>	<p><b>6. saioa</b></p> <p>Indarkeriak harreman afektibo sexualetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman afektiboak.</li> <li>• Indarkeria motak.</li> <li>• Indarkeria psikologikoa.</li> <li>• Indarkeriaren dinamika.</li> </ul>
Baliabideak	
<p><b>7. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer egin indarkeria matxisten aurrean: zuri gertatzen bazaizu, lagun bati gertatzen bazaio, si erasotzailea ezagutzen badut.</li> </ul>	<p><b>8. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabide instituzionalak: Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa.</li> </ul>

## Programaren egutegia

Saioa	Data	Ordutegia
1. saioa	2022/02/09, az.	17:00 - 19:00
2. saioa	2022/02/16, az.	17:00 - 19:00
3. saioa	2022/02/23, az.	17:00 - 19:00
4. saioa	2022/03/02, az.	17:00 - 19:00
5. saioa	2022/03/09, az.	17:00 - 19:00
6. saioa	2022/03/16, az.	17:00 - 19:00
7. saioa	2022/03/23, az.	17:00 - 19:00
8. saioa	2022/03/30, az.	17:00 - 19:00



# EBALUAZIO ETA AKREDITAZIO PROZEDURA

Ebaluazioa egiteko, astero proposatutako jarduerak baloratuko dira, foroetan parte hartuko da, bai eta programaren bideratzaileekin astero online egingo diren saio sinkronikoetan ere.

1'5 kredituren (ECTS) onarpen ofiziala duen partaidetza-ziurtagiria jasotzeko, beharrezkoa izango da:

Astean zehar foroan izandako parte hartzea eta amaierako lana ere hartuko dira kontuan programa gainditutzat jotzeko.

Gainera, saio guztiak egiten dituzten eta astero foroan parte hartzen duten ikasleek 1'5 ECTS kreditua aitortzen duen ziurtagiria jasoko dute.

On line saioak: modu sinkronikoan parte hartu behar da saioen % 70ean, nahitaez, eta ezin bada egin, lan osagarri bat egingo da grabatutako saioa ikusi eta proposatzen diren materialak irakurri ondoren. Nahitaezko saioetara joatea ebaluazioaren % 60ri dagokio.

Foroa: astero foro bat irekiko da eztabaidarako gai bat plazaratzeko. Nahitaezkoa izango da foro bakoitzean gutxienez behin parte hartzea, ideia eta hausnarketa esanguratsuak partekatuz, proposatutako gaiaren arabera. Ebaluazioaren % 10ek parte hartuko du foroetan.

Zereginak: proposatutako egunetan aurkeztu beharko diren 6 jarduera proposatuko dira. Arestian adierazi bezala, saiora joaten ez diren pertsonak jarduera gehigarri bat aurkeztu beharko dute. Atazak ebaluazioaren % 30 izango dira.

